




Bartzelonan biziraun



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Hiriko kaleetara itzuli dira koronabirusak atzean utzi zituen turistak. Horrek, agian, 1,6 milioi biztanleko beste hiri batean ez luke garrantziarik izango. Bai ordea Bartzelonan, non aurten jada ia 1,5 milioi bisitari heldu diren itsasoz. Oraindik urrun daude pandemia aurreko bi urteetako bakoitzean izandako hiru milioi portu-bisitariak, baina joera da berriz ere errezeta berarekin tematzea.

Aireportua zabaltzearen inguruko oihartzunak ez dira itzali oraindik, eta Prat ikusminez ari da jarraitzen afera, Ricardako ingurune naturala ken ez diezaioten. Oraingoz, irailera arte ia 31 milioi bidaiari igaro dira bertatik, 2020 konfinatu osoan halako bi baino gehiago, eta kopuru horrek eliteak hauspotzen ditu COVID aurreko 50 milioietara iristeko.

Oraingoz arte iragate- edo zirkulazio-zifrez soilik hitz egin dugu, hemen bizi garenok arnasa hartzea gero eta gehiago konplikatzeko digun zifraz. Urtean 1.300 heriotza saihestuko lirateke OMERen kutsadura-mailak beteko balira. Europako mila hiri aztertu dituen ikerketa baten arabera, nitrogeno-dioxidoak eragindako kutsadurak eragin dezakeen heriotza gehien duen seigarren hiria gara. Ibilgailu pribatuaren joan-etorriari egotzen zaio hori, baita beste faktore batzuei ere, hala nola energia kutsatzaileen erabilerari, kokapen geografikoari eta portua bezalako azpiegituri.

Urte hasieran
alokairuaren prezioa
%10 garestitu da (...)
Ez da harritzekoa iaz
Bartzelonak 15.121
biztanle galtzea

Berriz ere itsasoa, gure altxorra eta agian kondanaren zati bat ere bai. Uraren hogeita zortzi gradu eta erdiko tenperatura joan den uztailan, azken hamarkadako batez bestekoa baino lau gradu gehiago data berberetan. Ez pentsa kanpoan freskoago egiten duenik: hamar urtean lehen aldiz, bost hilabete baino gehiagotan kateatu ditugu hirian gau tropikalak. Papagaiak etxean bezala daude eta ez naiz txantxetan ari. Maiatzaren 19tik gaur arte, ilargipeko gutxieneko tenperatura hogeitaz gutxi gora mantendu da gau gehienetan.

Dena azkar-azkar doa eta giroa bero dago. Urteko bisitari kopuruari dagokionez, errekorra 2019an erregistratu zen, hiriko hotel eta pisu turistikoetan 33 milioi gau igaro zituzten hamabi milioi

turistarekin, datu ofizialak soilik kontuan hartuta. Legea eginga tranpa ere bai. Orain joan zaitezte Udalari galdetzeraz Airbnb-ri jarritako isunen inguruan; kapitalismo basatiak beti bereganatzen du higiezinaren giltza eta estatistika berriro geratzen da errealtatearen azpitik.

Eta hemen jarraitzen dugu askok, hazten ikusi gaituen hiriaren kanporatze planifikatuari aurre eginez. Urte hasieran alokairuaren prezioa %10 garestitu da, batez ere Auzitegi Konstituzionalak kontratu berrietarako prezioen muga bertan behera utzi ondoren. Hori guztia, hiri batean non errentarien kopurua milioi erdi ingurukoa den -biztanleriaren herena- eta batez beste diru-sarreraren ia erdia gastatzen duen dagozkion hilerokoei aurre egiteko. Hala, ez da harritzekoa 2021ean Bartzelonak 15.121 biztanle galtzea, Kataluniako Estatistika Institutuari arabera udalerriz aldatu zirenak.

Bien bitartean, Bartzelonan 1.799 etxebizitza huts daude, edukitzailerien jabetzakoak, Kataluniako Etxebizitza Agentziaren arabera. Gehienak dira hilabete honetan The District higiezinaren inbertsioei buruz hirian egindako kongresuan bildu diren funts putreenak. Buru gainera pixka egiten digute eta eurria ari duela esaten dute, zerua oskarbi dagoen arren. Ez daitezela despistatu, ordea, hemen, goizago ala beranduago, ekaitz beltzak itzultzen direlako beti. ●